Aitor Alvarez Etxezarreta



B maila • Aipamena

Kaixo,ni Aitor Alvarez naiz eta 2003-ko maiatzaren 22an jaio nintzen. Txiki-txikitatik La Salle ikastetxean ikasi dut. Musika mundua oso gustukoa dut, eta hainbat instrumentu jotzen ditut. Denbora librean lagunekin egotea gustatzen zait. Aurten poema idatzi dut idazlehiaketarako eta aipamen saritua benetan sorpresa izan da niretzat. Pozgarria! Ea zuek ere gustuko duzuen!

ZURETZAT EZ NAGOEN ARREN

Ikusi zaitut

Abenduko ur hotzetan,
aintzirako isladan
lamien antzera igerian.

Ikusi zaitut

Abuztuko mendi eguzkitsutan,
gora eta behera,
maitagarrien antzera hegan.

Ikusi zaitut

Urriko hosto eroritan,
okrez jantziriko baso koloretsutan,
iratxoen antzera bihurri jauzika.

Ikusi zaitut

Martxoaren baso biziberrituan,
kimuz blai aurpegia eder
zaldien antzera korrika.

Ikusi zaitut eta ...
kasu egiten ez badidazu ere,
ezin etsi...

Udaberriko euriteak jasan ezik,
ezin baitu udan eguzkiak laztandu,

ezta udako sargoritan amildu gabe,
udazkeneko hegoiak hegatu.

Ikusi zaitut...

Eta gaur, hori nahikoa dut.